



Haur literatura

Marikanta eta inurriak
Mariasun Landa

Ilustrazioak: Jokin Mitxelena. Erein, 2012

Lan egin eta dibertitu

URTE BATZUETAKO isilunearen ostean Mariasun Landak bi lan argitaratu ditu haur eta gazteentzat 2012ko hondarrean: *Maitagarria eta desioa* (Elkar) errealismo fantastiko korrontean koka daitekeen nobela eta *Marikanta eta inurriak* ipuina (Erein). Azken ipuin honetan, izenburutik beretik nabari den bezala, Txitxarra eta inurriak alegia ezaguna dugu hipotestua, baina oraingoan idazleak alegiaren bestelako interpretazio eta bestelako kontakizuna eskaintzen dizkigu.

Txitxarra, denok dakigun bezala, ez da inurria bezain langilea eta gero komerriak izaten ditu negua igarotzeko. Horixe dugu alegiaren ikaskizuna, geroa prestatzeko lan egin behar dela... baina Marikanta txitxarrak lan egin baino, nahiago du kantatu, eta inurriek proposamen zehatza egiten die negua igaro ahal izateko inurritegi barruan, bertako inurriek kantuan erakustea Inurrientzako Nazioarteko Abesbatzen Lehiaketan parte har dezaten. Eta horrela kantuan igaro zuten negua inurriek. “Marikantak lan asko egin zuen baina are gehiago dibertitu. Animoa eta adorea ematen zion inurri taldeari inongo etsipen apurrik azaldu gabe. Eutsi goiari! Behin eta berriz. Azkenean, espero zitekeena baina pazientzia eta ardura handiagoko zomorrotxoa zela erakutsi zuen.” Baina udaberria zetorrela sentitzean “arrastorik utzi gabe desagertu zen txitxarra inurritegitik”. Marikantak “negualdi bereziki atsegin eta eroso

izan zuen. Babeslekua eta janaria izateaz gain, bere autoestimua handitu egin zen abeslari eta talde dinamizatzailer bezala. Gainera, artez bete zuela inurri triste eta aspergarri batzuen bizitza”. Irakurleak, baina, hasieratik suma dezakeen bezala Marikantaren asmoak ez dira guztiz zuzenak izan eta hori, argi eta garbi ikus daiteke Leonor sorgin-orratzarekin duen elkarriketan:

—*Ez al dizu lotsarik ematen langile gaixo horiek engainatu izanak?* —errieta egin zion Leonor sorgin-orratzak.

—*Lotsa? Zer esan nahi du horrek?*

Horrelakoxeak dira txitxarrak. Berezkoa dute.

Baina engainatuak izanda ere, inurriek kanten alaitasunarekin egiten dute lan harrezkero. Izan ere, alegien ikaskizunetik ihesi, Landak bestelako ikaskizuna eskaintzen digu ipuin labur honetan, artearen balioarena, lagun giroan ondo bizitzearen garrantziarena. Ondo pasatuz hobeto bizi garela alegia.

Ipuina sinplea da, azkar irakurtzen dena, eta Jokin Mitxelenaren irudiek ederki islatzen eta edertzen dute narrazioa. Kontakizuna lineala da, hasieran dagoen aurkezpena kenduta, eta nahiko erraz irudika dezakegu inurritegiko bizimoduak bai eta hurrengo urteetakoa ere. ■

**Xabier
Etxaniz Erle**



**TALLERES
MITXELENA S.COOP.**



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Talleres Mitxelena, S.Coop.

Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com